

Lokalen erabilera gazteen aldetik

Gure erkidegoan, gero eta udal gehiago dira, gazteen beharrianak legalki asetzeko konpromisoa hartzera behartuak izan direnak. Honen adibide dira, aspaldian aisialdira bideraturik dauden gazte lokalen alokairua. Izan ere, egoera horren aurrean zenbait udalek esku hartu dute, lokal horien alokairua legalki tramitatuz eta jardunbidea erregulatuz, sortu daitezkeen zaratak, ordainketa arazoak...saihesteko asmoz. Ekimen honen bitartez, legalki artikulatzen dira: gurasoen baimenak, ordainketen bermea, sortu daitezkeen triskantzen erantzuleak...

Hainbat arrazoi daude gazteek lokal horiek aldarrikatzeko. Normalean, eskaera egiten duten gazteek esan ohi dute, lokal horien beharra dutela, zehazki, gurasoen kontrolpetik kanpo dagoen toki baten beharra, bertan lasaitasunez elkartzeko, hitz egiteko, musika entzuteko, pelikulak ikusteko...

Lokal hauetan, gazteek beraien zaletasunak praktikan jartzeko aukera gehiago izaten dituzte. Era berean elkarbizitzarako arauak eta muga propioak (kanpoko mugetatik at) ezartzea ahalbidetzen diete. Horrez gain, arauak betetzerakoan eta erabakiak hartzerako garaian, erantzukizuna eta autonomia garatzen laguntzen diete. Azkenik, azpimarratu beharreko beste aspektu positibo bat, taldearen arteko hizketaldiak bultzatzea da, talde baten parte direnaren sentimendua barneratzen dutelarik, beraienganako konfiantza sustatuz.

Lokal hauek izan ditzaketen desabantailen artean, bertan ematen diren jarduerekin lotu ohi dira. Izan ere, gazteen lokal hauek, maiz, modu ezkutatu batean eta kanpoko kontrolpetik at, alkohol eta drogen kontsumorako toki aproposak izaten dira. Horrek, arazoak ekar ditzake maila pertsonalean (kontsumoari dagokionez) nahiz sozialean (zaratak...).

Horrez gain, gazte hauen aisialdia lagun-talde jakin batekin erlazionatzera muga dezakete, gainontzeko gazteekin harremanetzeko beharra ez izatera iritsiz. Hori dela eta, gomendagarria da gazte hauei esleitzea, beste jarduera eta kide batzuekin partekatu beharreko toki batzuk daudela.

Gurasoentzat zaila izan daiteke alternatiba bezala proposatzen den inizatiba hau babestea eta begi onez ikustea. Gainera, hauentzat koste ekonomikoa suposatu lezake (normalean, ez da diru asko izaten, talde handiak izaten direlako). Aurrekoaz gain, lokal hauetan desatseginak eta arriskutsuak izan daitezkeen kontsumo egoerak ematearen beldur dira.

Hala ere, garrantzitsua da gure seme-alabek egiten dutenaren gainean konfiantza izatea, inizatiba horren esperientzia, baliagarria suerta daitekeelako beraien garapenari dagokionez. Izan ere, espazio bat izatearen ardura eta konpromisoa hartzen dute eta bertan ezarritako arauak eta mugak ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioen erantzule direla barneratzen dute: txukuntasun ezak, gehiegizko zaratak... alokairuaren kontratua baliogabetzea edota espazio propio horren galera suposatu lezakeelako.

Komenigarria da beraz, gurasoek seme-alabekin, gazteen aisiari begira bideratutako espazio horren onurak ezagutzea eta iritzia elkartrukitzea.

LABURBILDUZ:

Gero eta gazte gehiagoren eskakizuna da, beraien zaletasunak garatu ahal izateko eskuragarriak diren lokalak eskuratzea. Gurasoek, aldiz, espazio horien abantailak eta desabantailak mahai gaineratzen dituzte erabaki bat hartzerako momentuan eta modu berean, instituzioen laguntza eta babesa bilatzen dute lokalak berenganatzeko beharrezkoa den prozedura errazteko asmoz.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luis Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia